



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA **2005eko urtarrilaren 27ko ohiko bilera**

BERTARATU DIRENAK:

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EZ DA BERTARATU, ARRAZOA AZALDUTA

EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

XABIER PAYA jn.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARAGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta bosteko urtarrilaren hogeita zazpiko arratsaldeko zazpiak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2004ko ABENDUAREN 23ko OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA: Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Aktaren 36. orrialdean aurrekontuen osoko zuzenketari buruz hitz egiten duen aldi batean, honakoa adierazten dela esan du: "*Iaz, bere talde politikoak nabarmendu zuen Gobernu Talde honek jarraitzen zituela horretarako ezarritako arauak, aurrekontuak urtea amaitu aurretik onesteari dagokionez....*".

Horren harian, zinta berriro entzun ondoren, esan nahi zuena zehatz zehaztea nahiko zaila dela konturatu dela adierazi du, honakoa baitzen: "*Iaz, bere talde politikoak nabarmendu zuen Gobernu Talde*



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

honek ez zituela jarraitzen horretarako ezarritako arauak, aurrekontuak urtea amaitu aurretik onesteari dagokionez....".

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, 2004ko abenduaren 23ko bileraren akta onetsi du, Alderdi Popularra Udal Taldeko bozeramaleak egindako zuzenketarekin.

2.- TAXIAREN UDAL ARAUDI BERRIA HASIERAN ONESTEKO PROPOSAMENA, EUSKO LEGEBILTZARRAREN ARAUDIARI EGOKITZEKO. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko urtarrilaren 18an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 5/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko urtarrilaren 12an hartu zuen 7 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek adierazi dute automobil arinen bidezko garraio zerbitzua arautzen duen udal araudia egokitu behar dela, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legeari eta horren araudia garatzen duen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuari egokitzeko. Azken horrek beren-beregi adierazten du Lehenengo Xedapen Gehigarrian Udalek, Araudia indarrean jartzen denetik aurrera, urte beteko epea izango dutela beren ordenantzak Araudi horri egokitzeko. Ondorioz, Leioako udalak, bere eskumeneko ahalmenak erabilita, Araudi honen bitartez, aipatutako zerbitzuak arautuko ditu udal mugarte barruan.

Hori dela eta, Udaleko Bulego Teknikoak Taxiaren udal araudia idatzi du eta, horrek, zerbitzuaren erregulazioa Eusko Legebiltzarrak emandako araudian ezarritakoaren arabera biltzen du.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordea jakinaren gainean eta ados geratu da. Beraz, espedientea bidaliko dio udalaren osoko bilkurari, hasieran onetsi eta jendaurrean azal dezan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan adierazitakoari jarraituz.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da. Era berean, gai honi buruzko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 30 eguneko epea ezarriko da erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan daitezen.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Taxiaren Udal Araudia **oneste**a erabaki du, Eusko Legebiltzarraren ekainaren 29ko 2/2000 Legeari egokitzeko. Era berean, berau indarrean sartzeko beharrezko tramite guztiak ere onetsi ditu.

3.- ELKARKIDETZA: ELKARKIDETZAKO PENTSIO PLANAK KONTROLATZEKO BATZORDEAK **BERRITZEA**: Barne Araubideko Informazio Batzorde Bereziak 2005eko urtarrilaren 25ean egindako bilera hartutako 16 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Alkatetza-udalburutzak, bertan adierazitako egunean egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, 39 zenbakidun ebazpena onetsi du. Honakoa dio:

“Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko urtarrilaren 11n hartu zuen 7 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Elkarkidetzak erakunde horretako Pentsio Planak Kontrolatzeko Batzordeetako kideak izendatzeari buruzko agiriak bidali ditu udaletxera (sarrera-erregistroko zenbakia: 257/05).

Bidali duten idazki horretan azaldutakoaren arabera, Leioako udalari, erakunde sustatzailea den aldetik, erakundeko lau ordezkari dagozkio Kontrolatzeko Batzordean; horiek udalak izendatu beharko ditu. Beste alde batetik jakinarazi da aipatutako Batzordeak martxoaren 28rako berri behar dela; horrenbestez, partaideen ordezkariak ere berriro izendatu beharko dira eta, beraz, hauteskunde-prozesua antolatu beharko da.

Agiri horiekin batera, partaideen lau ordezkariak hautatu ahal izateko ereduak ere bidali dituzte.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak honako irizpena eman du:

1.- Leioako udalak Kontrolatzeko Batzordean izango dituen lau ordezkariak, udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean zuzenean aurkeztuko den proposamenaren ondoren izendatzea proposatuko da.

2.- Beharrezko tramite egokiak egingo dira onuradun eta partaideen ordezkariak izendatzeko prozesua hasi ahal izateko.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK puntu hau Barne Araubideko Informazio Batzordeari helaraztea erabaki dute, udalaren osoko bilkurari horri buruzko proposamen egokia egin diezaion.”

Gai honen inguruan EAJ-PNVren ordezkariak honako udal ordezkari hauek proposatu ditu:

- Francisco Javier Bidea Molinillo jauna.
- Guillermo Mateo Kareaga jauna.
- Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jauna.
- Rubén Belandía Fradejas jauna.

PSE-EE-PSOE eta PP alderdien ordezkariak uste dute arestian azaldutako proposamenak ez duela udalbatzaren gaur egungo osaera ordezkatzeko eta, ondorioz, horren kontrako botoa emango dutela iragarri dute.

Gaia bozkatu eta honakoa izan da emaitza: EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jaunak, Javier Bidea Molinillo jaunak, Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak eta Bea Resa Bardeci andreak eta EAko Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jaunak aldeko botoa eman dute; PSE-EE-PSOeko José



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Manuel Toledo Cañamero jaunak eta Nieves Hurtado Urriaga andreak eta PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak eta Aiala Eguiluz Rodríguez andreak boto partikularra eman dute; horrela bada, udalaren osoko bilkurari beste proposamen bat aurkezteko aukera aipatu dute. Ondorioz, **Barne Araubideko Informazio Batzordeak** aldeko irizpena eman dio EAJ-PNVren ordezkariak aurkeztutako proposamenari, eta gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Barne Araubideko azken Batzordean egin zen proposamenari dagokionez, beraien ustez Elkarkidetzaren Kontrol Batzordearen lana garrantzitsua dela adierazi du, udal langileak atxikita dauden Pentsio Planak behar bezala kudeatuko direla zaindu behar baitu.

Bere ustez bitarteko guztiak ipini behar dira Elkarkidetzaren kudeaketa gardentasun eta eraginkortasun irizpideen bitartez bideratzen dela kontrolatzeko. Gauzak horrela, garrantzitsua da udal honetan aukeratuko den Kontrol Batzordea askotarikoa izatea, bere ustez, ahalik eta fidagarrien islatuz osoko bilkuraren gaur egungo eraketa; horrela bada, kontrol lana hobea izatea bermatuko litzateke.

Hala eta guztiz ere, Eusko Alderdi Jeltzalearen ordezkariak egindako proposamena osoko bilkuraren osaeraren aniztasun eta fidelitate irizpideen kontrakoa dela uste dutela esan du. Horrela bada, Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasunak osoko bilkuran duten ordezkariaren % 52 osatzen dutenez, Kontrol Batzordeko 4 lekuetatik 3 eurentzat izatea proposatu dute, hau da, ordezkariaren % 75.

Bere talde politikoak Kontrol Batzorderako osaera alternatiboa proposatu nahi duela adierazi du, euren ustez bidezkoagoa eta errealitateari doituagoa izango dena. Hori dela eta, gobernu-taldeko ordezkari bi eta oposizioko alderdi nagusienetako (hau da, Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularra) ordezkari bi proposatuko lituzkete Udalaren Kontrol Batzordea eratzeko.

Euren ustez, proposatu duten ordezkariak honek eraginkorrago egin litzake Elkarkidetzaren kudeaketa kontrolatzeko lanak.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Talde politiko bakoitzak Elkarkidetzari buruz izan lezakeen iritzia alde batera utzita, egia da Kontrol Batzordea ezin dutela Gobernu Taldeko gehiago batek bakarrik eratu, Barne Araubideko Batzordean proposatu zen bezala. Proposamen hori Xabier Olabarrieta PPko bozeramaileak adierazitako aniztasun irizpidearen aurkakoa da, ordezkariaren hiru laurdenak Gobernu Taldearenak baitira, talde politiko biren artean banatuta. Hori dela eta, euren ustez, ordezkariak aldatu egin beharko litzateke, osoko bilkuraren eraketa hobeto azaltzeko. Ez daki Xabier Olabarrieta jaunak proposatu duen modua edo beste moduren bat izango den egokiena baina, zalantzarik gabe, ez Gobernu Taldeak aurkeztu duena.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan aldeko hamaika boto izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak eta Eako zinegotziarena; kontrako bederatzi boto, PPko lau zinegotzienak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko zinegotziarena. Ondorioz, Udalaren osoko bilkurak **gehiengoz onetsi du** Barne Araubideko Informazio Batzordearen irizpenaren terminoei jarraituz, Francisco Javier Bidea Molinillo jauna, Guillermo Mateo Kareaga jauna, Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jauna eta



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Rubén Belandia Fradejas jauna izendatzea "Elkarkidetza"ko Pentsio Planak Kontrolatzeko Batzordeetako ordezkariak izateko.

4.- LEIOAKO UDALEKO ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAREN IDAZKIA; BERTAN, METRO BILBAO ELKARTEARI, METROKO UNITATEETAN PREMIAZKO ARGIBIDEETARAKO PANTAILAK EDO LARRIALDI EGOERETAN ENTZUTEKO MINUSBALIOTASUNAK DITUZTEN PERTSONEI ARGIBIDEAK EMANGO DIZKIEN BESTE EDOZEIN SISTEMA JARTZEKO AGINDEIA EGITEA PROPOSATU DUTE: Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko urtarrilaren 18an egindako bileran hartutako 15 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordean 8/05 zenbakidun irizpena onetsi zen:

"Leioako Udaleko Alderdi Popularra Udal Taldearen ordezkaria den Xabier Olabarrieta Arnáiz jaunak 2005-01-12an aurkeztu zuen idazkia irakurri da (sarrera-erregistroko zenbakia: 181); bertan, Metro Bilbao Elkarteari, metroko unitateetan premiazko argibideetarako pantailak edo larrialdi egoeretan entzuteko minusbaliotasunak dituzten pertsonen argibideak emango dizkien beste edozein sistema jartzeko agindeia egitea proposatu du.

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordea jakinaren gainean geratu da."

Hona hemen aipatutako proposamenaren testu osoa, hitzez hitz:

"ERABAKI-PROPOSAMENA

Agintari publikoek eskura ditugun neurri guztiak gauzatu behar ditugu minusbaliatuek eskatutako eskariak bete eta gizarteratzen laguntzeko, eskubide osoko herritar bihur daitezten. Administrazio guztien betebeharra da pertsona horiek jasaten dituzten marjinazioa, bereizkeria eta oztupo fisiko eta sozialak kentzea.

Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legeak honakoa dio 5.3 artikuluan: "Bidaiarien garraio publikorako diren eraikin edo instalazioek informazio eta komunikazio akustiko, ikusteko eta sentorialerako sistema egokiak izango dituzte, edozein pertsonak era autonomoan eta behar bezalako segurtasun-baldintzetan erabiltzeko modukoak". Era berean, honakoa dio 5.4 artikuluan: "Garraio arloan aginpidedunak diren herri-administrazioek bidezko diren neurriak hartuko dituzte garraio publikoak, lege honetako aginduei pixkanaka-pixkanaka egoki dakizkien". Azkenik, honakoa dio 6.2 artikuluan: "Komunikaziorako sistemetan egokienak diren baliabide teknikoak ezartzen direla bermatuko dute herri-administrazioek, herritar guztiei eta, batez ere, komunikazioan zailtasunak dituztenei, komunikaziorako duten eskubidea bermatzeko".

Entzuteko minusbaliotasuna duten pertsonen, urrituta edo galduta dute entzute-estimulua eta horrek dakarren informazioa jaso, aintzatetsi, bereizi eta ulertzeko sentikortasuna. Minusbaliotasun modu hori ikustea oso zaila izan daiteke, "ikusezina" izan baitaiteke, hau da, batzuetan ikustearekin bakarrik ez da deigarria. Entzuteko urritasunak, gainera, hainbat arazo dakartza eta horietako nabarmenena komunikazioa izango litzateke.

Larrialdi egoerak oso momentu zailak dira edozein pertsonarentzat, inolako minusbaliotasunik ez duten pertsonentzat ere. Hori dela eta, kontuan izan behar dugu minusbaliotasunen bat duten pertsonentzat, esaterako entzuteko urritasuna dutenentzat, are handiagoak direla aipatutako zailtasun horiek.

Hainbat eta hainbat bidaiarik Metro Bilbao erabiltzen dute egunero-egunero Bizkaiko herrien artean lekualdatzeko eta, horrenbestez, puntako orduetan jende asko biltzen da bertako unitateetan. Unitateek ez dute larrialdi egoeretarako argibide sistemarik, gertatzen ari dena jakinarazteko. Hori oso oztupo garrantzitsua da entzuteko minusbaliotasuna duten pertsonentzat, larrialdi egoeretan ez baitute inguruan gertatzen ari denari buruzko inolako argibiderik.

Baina gabezia hori konpon daiteke, inguruko gertakariei edo ibilbidean egon daitezkeen gertakariei buruzko unean uneko argibideak emango dituzten pantailak instalatzearen bitartez. Gainera, sistema hori



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

instalatzen bada, entzuteko minusbaliotasunen bat duten pertsonentzat baliagarri izateaz gain, inolako minusbaliotasunik ez duten erabiltzaileei ere emango lizkieke argibideak.

ONDORIOZ, ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAK HONAKO ERABAKIA BIHURTU DIO OSOKO BILKURARI, EZTABAIDATU ETA ONETS DEZAN.

BAKARRA. *Leioako udalak agindeia egin nahi dio Metro Bilbao Elkarteari, metroko unitateetan premiazko argibideetarako pantailak edo larrialdi egoeretan entzuteko minusbaliotasunak dituzten pertsonen argibideak emango dizkien beste edozein sistema jartzeko.*

Barne Araubideko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio aurkeztutako proposamena Udalaren Osoko Bilkurari bihurtzeari.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Botere publikoek baliabide guztiak jarri behar dituzte gaigabezien eskaerak eta beharrak betetzeko. Beraz, euren eginkizuna gaigabeziek gizartean aurkitzen dituzte oztopoak ezabatzea izango da.

20/1997 Ailegaerretasuna Bultzatzeko Legeak, 5.3 artikuluan, zera dio: *"las instalaciones destinadas al transporte público de viajeros, dispondrán de sistemas adecuados de información y comunicación acústica, visual y sensorial que garanticen su utilización autónoma por todas las personas"*, eta 6.2 artikuluan honela dio *"las Administraciones Públicas velarán por la incorporación de los medios técnicos más apropiados en los sistemas de comunicación, al objeto de garantizar el derecho a la comunicación a toda la ciudadanía y en particular a las personas con dificultades de comunicación"*.

Bilbao Handiko biztanleek, oro har, eta leioaztarrek ere, asko erabiltzen dute Metroa; baina bidaiari ezustekoren bat gertatzen bada, bagoietan sistema akustikoa baino ez dago ezusteko horri buruz bidaiari informatzeko.

Beraz entzumen-gaigabezia duten pertsonen ez dute inolako sistematik ezustekoei buruz informatuta egoteko.

Gure alderdiak entzumen-gaigabeziek duten oztopo nabarmen hori zuzen dezala eskatzen dio Sociedad Metro Bilbaori.

Hori dela medio, Toki Administrazioaren erantzukizuna kontuan hartuta, eta metroko bidaiari guztiek informazio aukera berdina edukitzeko, bagoietan pantailak – edo antzeko sistemaren bat – jartzea eskatzea proposatzen diogu Udalaren Osoko Bilkura honi.

Ziur gaude, gainera, sistema hau jartzen bada, Metro Bilbaoko erabiltzaile guztien onurako izango dela.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Alderdi Popularra Udal Taldearen proposamena **oneste** erabaki du eta, ondorioz, agindeia egingo zaio Metro Bilbao Elkarteari, metroko unitateetan premiazko



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

argibideetarako pantailak edo larrialdi egoeretan entzuteko minusbaliotasunak dituzten pertsonen argibideak emango dizkien beste edozein sistema jartzeko.

5.- ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAREN PROPOSAMENA, MINUSBALIOTASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOEN ERRESERBA-KUOTAK % 3tik % 5era IGOTZEARI BURUZ:

Barne Araubideko Informazio Batzorde Berezia 2005eko urtarrilaren 25ean egindako bileran hartutako 17 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Alkatetza-udalburutzak, bertan adierazitako egunean egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, 43 zenbakidun ebazpena onetsi du. Honakoa dio:

“Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko urtarrilaren 18an hartu zuen 14 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzorde honek hil honen 11n egindako batzarrean, 6/05 zenbakidun irizpena onetsi zen:

“Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, PP udal taldearen ordezkariak, idazkia auzendu du. Honakoa dio, hitzez hitz:

ERABAKI-PROPOSAMENA

Espanian, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera, 3,5 milioi pertsona inguruk duten minusbaliotasunen bat. Minusbaliotasunen bat duten pertsonak biztanle-sektore heterogeneoa dira, baina guztiek dute zerbaiteko komunetan: neurri handiago edo txikiagoan, berme osagarriak behar dituzte eskubide osoz bizitzeko eta herrialdeko ekonomia, gizarte eta kulturaren gainerako herritarren baldintza berdinekin parte hartzeko.

Espaniako Konstituzioak, 14. artikuluan, legearen arabera berdintasuna aintzatesten du, inolako bereizkeriarik egin ezin dela. Era berean, 9.2 artikulua honakoa dio: "Botere publikoek dagokien inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezkeen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere". Amaitzeko, 49. artikuluan, minusbaliotasunak dituzten pertsonen dagokien, behar duten arreta berezia emateko, eta bereziki babesteko agintzen zaie botere publikoek, herritar guztiei ematen zazizkien eskubideak egokiaritu ahal izan dituzten.

Zoritxarrez, minusbaliotasunen bat duten pertsonak Herri Administrazioetako lan publikoari sartzeko aukera aztertzean, gehienetan, egoera etsigarria da. Fundazio Publikoari buruzko legearen lege-agindu berariazko eta argi-argia dagoen arren, errealitatean, zoritxarrez, ez da agindu hori betetzen. Azken finean, minusbaliotasunen bat duten pertsonak hainbat oztopo dituzten lan publikoari eskuratzeko; gainera, oztopo horiek ezin dira justifikatu, zerbitzu publikoetako jarduerak guztiz bateragarriak baita minusbaliotasunen bat duten pertsonen dituzten gaitasun eta prestakuntzekin.

Lan eta enpleguaren jokabide berdintasunerako eredu orokorra ezartzeari buruzko Kontseiluaren 2000ko abenduaren 27ko 2000/78/CE zuzentarauak derrigortu egiten du, geure legeek enplegu alorrean hainbat arazoengatik (besteak beste minusbaliotasunarengatik) bazterkeria egotea debeka dezatela, aukera berdintasunerako neurri positiboak har ditzatela eta lana eskuratzeko zein lan-baldintzak hobetzeko oztopoak kentzeko zentzuzko egokitzapenak egin ditzatela lan guztietan, Herri Administrazioaren barrukoan barne. Funtzio Publikoari buruzko 30/1984 Legearen hemeretzigarren xedapen gehigarria aldatzen duen Minusbaliotasunen Enplegu Publikoari buruzko 53/2003 Legeak % 3tik % 5era igotzen du % 33 baino gutxiagokoa ez den minusbaliotasun maila egiaztatzen duten pertsonentzako erreserba Lan Eskaintza Publikoetan, pixkanaka-pixkanaka guztien % 2 lortzeko asmoz. Euskal Autonomia Erkidegoan, 16/1997 Legeak aldatu zuen Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak % 3ko erreserba-kupoa mantentzen du minusbaliotasunen bat duten pertsonentzat. Hori dela eta, estatuko araudiari egokitzeko eskatu nahi dugu, bereizkeria egoerak saihesteko.

Alderdi Popularrak, Lan Eskaintza Publikoko minusbaliotasunentzako erreserba-kupoiari dagokionez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea estatuko araudian ezarritakoari egokitzeko eskatu nahi du. Era berean, agindeia egin nahi diegu Euskal Toki Administrazioei, berdinketa hori egiten ez den bitartean eta euren autonomia oinarri



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

hartuta, Lan Eskaintza Publikoetan % 5eko erreserba ezar dezaten % 33 baino gutxiagokoa ez den minusbaliotasun maila duten pertsonentzat.

ONDORIOZ, ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAK HONAKO ERABAKIA BIHURTU DIO OSOKO BILKURARI, EZTABAIDATU ETA ONETS DEZAN.

LEHENENGOA. Leioako udalak agindeia egingo dio Eusko Jaurlaritzari, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea aldatu eta Lan Eskaintza Publikoko minusbaliatuentzako erreserba-kupoa % 3tik % 5era igo dezan, horrela estatuko araudian (53/2003 legea) ezarritakoari egokitzeko.

BIGARRENA. Leioako udalak, Lan Eskaintza Publikoan, % 33 baino gutxiagokoa ez den minusbaliotasun maila duten pertsonentzat % 5eko kupoa gordeko duela erabaki du.

Barne Araubideko Informazio Batzordea Alderdi Popularra Udal Taldearen ordezkariak aurkeztutako osoko bilkuraren erabaki-proposamenaren jakinarean gainean geratu da.”

EAJ-PNVren ordezkariak azaldu du proposamen hau Eusko Jaurlaritzari edo Eusko Legebiltzarrari aurkeztu beharko liezaiokeela, horiek baitute gai hau arautzeko ekimen edo eskumena. Horrela bada, horiek ezarritakoaren arabera jardungo luke udalak ere.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak, PPko udal ordezkariak gai hau osoko bilkuran aztertzeko ipini nahi duela azpimarratu duenez, aldeko irizpena eman dio gaia udal organo gorenak aztertzeari.

Ondoren Alkate-udalburuak,, PNV ordezkatzuz, honako proposamen hau egin du:

“Leioako udalak agindeia egin nahi dio Alderdi Popularrari, dagokion prozeduraren bitartez Eusko Legebiltzarrean aurkez dezan bere proposamena, berau baita gai honetan eskumena duen erakundea”.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK puntu hau Barne Araubideko Informazio Batzordeari helaraztea erabaki dute, udalaren osoko bilkurari horri buruzko proposamen egokia egin diezaion.”

EAJ-PNVren ordezkariak adierazi du Alderdi Popularrak ordezkariak daukanez Eusko Legebiltzarrean, bere asmoa aurkeztu beharko lukeela bertan. Horrela, bertako emaitza zein den jakitean, Udalak, lan eskaintza publikoa egiterakoan, bertan azaldutakoaren arabera jokatu luke.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak adierazi du bere ustez proposamen biak bateragarriak direla; nolana ere, Alderdi Popularrak Eusko Legebiltzarrean eskabide hau zuzenean aurkezteari kalterik eragin gabe, bere ustez horrek ez dio eragozpenik sortzen Udalak ere horren alde egiteari, eta bere lan eskaintzan % 5eko kupoa gordetzeari minusbaliotasun maila jakina duten pertsonentzat.

Alderdi Popularraren ordezkariak adierazi du bere ustez euren proposamena guztiz onargarria dela; horrela, udalaren osoko bilkurak berau onetsiko balu, udalak, bere eskaintza publikoetan, legez ezarritako gutxienekoa baino gehiagokoa izango litzatekeen kupoa gordeko luke minusbaliotasunen bat duten pertsonentzat.

*Gaia bozkatu eta honakoa izan da emaitza: EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jaunak, Javier Bidea Molinillo jaunak, Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak eta Bea Resa Bardeci andreak, PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak eta Nieves Hurtado Urriaga andreak eta EAKo Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jaunak aldeko botoa eman dute; PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak eta Aiala Eguiluz Rodríguez andreak boto partikularra eman dute, PP udal taldearen proposamenaren aldeko botoa emanaz. Ondorioz, **Barne Araubideko Informazio Batzordeak** aldeko irizpena eman dio Alkate-udalburutzak, EAJ-PNVren ordezkariak, urtarilaren 25eko Tokiko Gobernu Batzarrean*



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

aurkeztutako proposamenari. PP udal taldeak aurkeztutako proposamenari dagokionez, honakoa izan da emaitza: EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jaunak, Javier Bidea Molinillo jaunak, Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak eta Bea Resa Bardeci andreak eta EAko Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak kontrako botoa eman dute; PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak eta Nieves Hurtado Urtiaga andreak eta PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak eta Aiala Eguiluz Rodríguez andreak aldeko botoa eman dute. Horrenbestez, gaitziritzi egin da PP udal taldeak aurkeztutako proposamena. Nolanahi ere, Batzordeak, egoki iritzi dio udalaren osoko bilkuran proposamen biak bozkatu ahal izateari.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Puntu honetan ebazpen-proposamen bi daudela adierazi du: lehenengoa Alderdi Popularrak aurkeztutako proposamenaren bozketa bera izango litzateke eta, bigarrena, berak Alkatea den aldetik aurkeztu duen testu alternatiboa, Barne Araubideko Batzordean aldeko irizpena jaso duena.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, Konstituzioaren 49. artikulua, minusbalotasunen bat duten pertsonen dagokionez, agindeia egiten dien botere publikoei, behar duten arreta berezia emateko eta brezik mantentzeko, euren eskubideak egikaritu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, oraindik gaur egun, minusbalotasunen bat duten pertsonen enplegu publikora sartzeko hainbat eta hainbat oztopo dituztela azaldu du; gainera, horri buruzko araudi argi eta zehatza dagoen arren, bai autonomia mailan bai estatu mailan ere, minusbalotasunen bat duten pertsonak Herri Administrazio ezberdinetako enplegu publikora sartzeari dagokionez, kasu gehienetan egoera etsigarria bizi ohi da.

Leioa mailan, esaterako, onetsi den azkeneko lan eskaintza publikoan, ez da inolako aipamenik egin lanposturen bat minusbalotasunak dituzten pertsonentzat gordetzeari buruz.

Minusbaliatuen enplegu publikoari buruzko estatu mailako 53/2003 legeak, hasieran, % 5eko erreserba ezartzen du lan eskaintza publikoetan % 33 baino gutxiagokoa ez den minusbalotasun maila egiaztatzen duten pertsonentzako, pixkanaka guztizkoen % 2 eskuratzeko helburuz.

Euskadi mailan, euskal funtzio publikoari buruzko legeak % 3an mantentzen du minusbalotasunen bat duten pertsonentzako erreserbaren gutxienezko kupoa.

Hori dela eta, lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzari agindeia egitea eskatu dute, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea aldatu eta estatuko araudian ezarritakoari egokitzeko, azken hori hobe delako minusbalotasunen bat duten pertsonentzat, bazterkeria egoerak saihesteko asmoz.

Bigarrenez, Leioako udalak, egingo dituen Lan Eskaintza Publikoetan, % 33 baino gutxiagokoa ez den minusbalotasun maila duten pertsonentzat % 5eko kupoa gordetzea erabakitze eskatu dute.

Ekimen honekin uste dute Leioako udalak nabarmen bultzatuko lukeela minusbalotasunen bat duten pertsonak gizarteratzeko prozesua.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Ondoren adierazi du lehenengo eta behin Alderdi Popularrak aurkeztutako proposamena bozkatuko dela eta, ondoren, EAJ-PNVk aurkeztutakoa.

Une honetan PPKo Aiala Eguiluz Rodríguez andrea batzar aretotik irten da.

ALDERDI POPULARRAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAREN BOZKETA

Aldeko zazpi boto, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzianak eta PPKo hiru zinegotzianak; kontrako hamabi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkarienak eta EAko ordezkariarena; era berean, abstentzio bat



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

ere egon da, EB-Berdeak taldeko zinegotziarena. Hori guztia dela eta, ez da onartu Alderdi Popularra udal taldeak aurkeztutako proposamena.

Une honetan PPKo Aiala Eguluz Rodríguez andrea sartu da batzar aretoan, osoko bilkuran parte hartzeko.

EAJ-PNVk AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAREN BOZKETA

Aldeko hamabost boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzianak eta EAko ordezkariarena; kontrako lau boto, PPko lau zinegotzianak; era berean, abstentzio bat ere egon da, EB-Berdeak taldeko zinegotziarena. Hori guztia dela eta, **Udalaren osoko bilkurak, onetsi** egin du Alkatetza Udalburutzak EAJ-PNVren ordezkarietan aurkeztutako proposamena, Barne Araubideko Informazio Batzordearen irizpenari jarraituta.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Eusko Alderdi Jeltzaleak aurkeztutako proposamenari iruzkin bat egin nahi diola azaldu du, bertan agindeia egin baitzaie ekimen hau Eusko Legebiltzarrean aurkezteko. Horri buruz esan du Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak gutxieneko erreserba-portzentajea ezartzen duela minusbaliatuentzat, baina portzentaje horretatik aurrera udalak guztiz autonomoak direla egoki irizten duten beste portzentajeren bat ezartzeko. Horrela bada, euren ustez, udalak gaitasun osoa dauka eta ez zaio inolako agindeirik egin behar legegintzazko beste eremu batzuetan horrelako proposamenik egiteko.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Azaldu duenez, udal honetan LEP deialdia egiten denean, orduan hartuko dute gai honi buruzko erabaki egokia, eta ez orain. Horrela bada, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea aldatu nahi baldin bada, aldaketa hori Eusko Legebiltzarrean egin behar dela adierazi du. Ondorioz, erakunde horregana jo beharko da euren proposamena aurkeztera, azpimarratu duenez.

6.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2004-12-17TIK 2005-01-21ERA. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientearen agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeak kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

7.- PRESAZKO MOZIOAK

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Atal honetan ez da eskaera ez galderarik aurkeztu.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Eta iluntzeko zazpiak eta berrogei minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA,

IDAZKARIA,